

Euskadiko Gurutze Gorriaren Boluntarioen Autonomia mailako V. Topaketa

Euskadiko Gurutze Gorriak omenaldia eskainiko die bere boluntarioei

- Larunbatean, azaroaren 24an, erakundeko Boluntarioen Autonomia mailako V. Topaketa ospatuko da Bilbon.
- Une honetan, Gurutze Gorriak 4.500 boluntario ditu Euskadin.

Gurutze Gorriaren indarra bere boluntarioengan oinarritzen da: beraiek dira adinekoek ahalik eta laguntasun gehien izan dezaten lan egiten dutenak, istripuetako biktimei arreta eskaintzen dietenak eta erreskateetan parte hartzen dutenak, gazteak balioetan hezten dituztenak, ospitaletan gaixorik dauden umeekin jolasten direnak, pertsonen gizarteratzean eta laneratzean laguntzen dutenak... Hau da, gizarte zuzenagoaren eta solidarioagoaren alde borrokatzen direnak.

Hori dela eta, Gurutze Gorritik ondo baino hobeto merezitako omenaldia egiten zaie euren lanari eta dedikazioari. 400 boluntario inguru joango dira azaroaren 24an Bilbon dagoen EHUren Bizkaia Aretora, **Euskadiko Autonomia Erkidegoko hiru probintzietan boluntario gisa aritzen diren 4.500** pertsonak (2.427 Bizkaian, 1.614 Gipuzkoan eta 459 Araban) ordeztuz. Boluntarioaren soslaiari dagokionez, azpimarratu behar da genero parekotasuna dagoela, **%52,9 emakumeak dira eta %47,1 gizonak. Batez besteko adina 29 urtekoa da**, eta jarduera nagusia Gizarteratzearekin erlazionatuta dagoena da. Horren ondoren Sorospenak eta Larrialdiak eta Gazteriaren Gurutze Gorria datoz.

Ekitaldiaren buru **Iñaki Irusta Bilbao**, Gurutze Gorriaren Euskadiko Autonomia Erkidegoko presidentea izango da. Instituzioak ordeztuz, **Emilio Sola Ballojera** Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen zuzendaria, **Pedro Anitua Aldekoa** Eusko Jaurlaritzako Larrialdi eta Meteorologia Arretarako zuzendaria, **Itziar Urtasun Jimeno**, Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta, Bizidetzeta eta Jaietako Saileko zinegotzi ordezkaria, **Patxi Juaristi** EHUren Bizkaiko Campuseko errektoreordea egongo dira, eta baita Euskadiko Autonomia Erkidegoko hiru probintzietako boluntarioen ordezkariak ere.

Nazio mailan, Gurutze Gorriaren boluntarioen %57,21 emakumeak dira, eta %42,79 gizonak. Boluntarioen batez besteko adina 40 urtekoa da, eta gehienak 21 eta 30 urte artekoak dira (%26,91) eta Bigarren mailako ikasketak dituzte (%42,49).

Gaia: **Autonomia mailako omenaldia Euskadiko Gurutze Gorriaren boluntarioei**

Lekua: **EHUren Bilboko Bizkaia Aretoa (Abandoibarra etorbidea, 3)**

Eguna: **larunbata, 2018ko azaroaren 24a**

Ordua: **10:30ean. Harrera**

11:00etatik 13:30era. Topaketa

Álvaro García Serrano
Komunikazio Arduraduna

Arabako Gurutze Gorria
Tlfn. 945 22 22 22 luzapena 8 | 678 40 14 43 | comunicacionalava@cruzroia.es